

**Aberastasunaren eta fortuna handien
gaineko zerga
2017**

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga

1. Sarrera
 - 1.1 Zein dago aitortzera behartuta?
 - 1.2 Zeri deritzogu ohiko egoitza?
 - 1.3 Zer aitortu behar da?
 - 1.4 Zer ez da aitortu behar?
 - 1.5 Zein da titularra?
 - 1.6 Nola aitortzen da?
 - 1.7 Noiz eta non aurkezten da aitortpena? Nola ordaintzen da?
 - 1.8 Testamentu-ahalardea erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek
2. Zerga oinarria?
3. Nola baloratzen dira ondasunak, eskubideak eta zorrak?
 - 3.1 Ondasun higiezinak
 - 3.2 Jarduera ekonomikoak
 - 3.3 Kontu korrante edo aurrezki kontuen gordailuak, agerian edo epeka
 - 3.4 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak
 - 3.5 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak
 - 3.6 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak
 - 3.7 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten gainerako baloreak
 - 3.8 Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak
 - 3.9 Bitxiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak eta aireontziak
 - 3.10 Arte-gaiak eta zaharkinak
 - 3.11 Eskubide errealak
 - 3.12 Administrazio emakidak
 - 3.13 Jabetza intelektual eta industrialetik eratorritako eskubideak
 - 3.14 Kontratuzko aukerak
 - 3.15 Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun eta eskubideak
 - 3.16 Zorrak
4. Oinarri likidagarria
5. Kuota osoa
6. Oinarri likidoa
7. Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria

1. Sarrera

1.1 Zein dago aitortzera behartuta?

Pertsona fisikoak behartuta daude, obligazio pertsonalagatik, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga aitortzera, baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kasuan Gipuzkoako Foru Aldundian direnean zergadunak.
- **700.000,00** eurotik gorako zerga oinarria dutenean (zergaren arauen arabera kalkulatu) **eta hortik ordaintzeko kuota likido bat ateratzen denean, edo zirkunstantzia hau bete ez arren, haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauen arabera kalkulatu hau ere, ondasun eta eskubide salbuetsiena barne, 3.000.000,00 euro baino handiagoa denean.** Kontuan izan behar da zerga exijitzen dela aberastasun garbi osoagatik, ondasunak non dauden kokatuta edo eskubideak non erabili daitezkeen kontuan hartu gabe.

Ez-egoiliar batek Gipuzkoan izan badu bere azken egoitza, Gipuzkoan aitortzea aukeratu ahal izango du obligazio pertsonalagatik. Aukera hori obligazio pertsonalari dagokion aitortpena Gipuzkoako egoiliar izateari utzi dion lehen ekitaldian aurkeztuz egin beharko da.

Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoek aberastasunaren eta fortuna handiena gaineko zerga ere aitortu behar dute, obligazio erreagatik, lurralde espainiarrean dituzten ondasun eta eskubideei dagokienez, baldin eta zerga honen arauen arabera kalkulatuak oinarri likidagarria 200.000 eurotik gorakoa bada, eta baldintza hauek betetzen badira:

- Ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egotea.
- Ondasun eta eskubideak Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batean edo batzuetan kokatuta badaude, Gipuzkoan kokatutako balioa beste lurralde historikoetan kokatuta daudena baino handiagoa izatea.

Zentzu horretan, lurralde jakin batean kokatuta dauden, gauzatu daitezkeen edo bete behar diren ondasun eta eskubideak hartuko dira lurralde horretan kokatutzat.

Orobat, zerga honen zergadunak testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak ere izango dira, hain zuzen 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen duenak, II. tituluaren aurreikusitakoak.

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzko abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauak 9.6 artikuluan aipa tzen dituen herentzietatik –testamentu-ahalordea erabili gabe dutenetatik– datorren aberastasun garbiari foru arau horretan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio, eta haren betebeharra da, baita ere, foru arau honetan eta Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergari buruzko abenduaren 18ko 10/2012 Foru Arauan ezar tzen diren obligazioak bete tzea.

OHARRA: 700.000,00 euroko minimo salbuetsia zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboak aplikatuko zaie, betiere frogatzen badute beren aberastasun osoa 700.000 eurotik beherakoa dela, eta haien egoitza ez badago paradisu fiskaltzat hartutako herrialdeetan edo informazio trukerako akordioak sinatu ez dutenetan.

1.2 Zeri deritzogu ohiko egoitza?

Irizpide hauek aplikatuz ulertuko da lurralde espainiarrean bizi den pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela:

- **Egonaldia:** Euskal Autonomia Erkidegoan urtebetetik gora egonik, Gipuzkoan ematen duen egun kopurua handiagoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurraldeetan baino.

Ondoko kasuan, adibidez, pertsona fisiko bat herri hauetan bizi izan da 2017. urtean, denbora tarte desberdinetan:

Herria	Hilak	Egunak
Madril	5	152
Donostia	4	121
Bilbo	3	92

Nahiz eta Madrilen egun gehiagotan bizi izan (152), Euskal Autonomia Erkidegoan egondakoak (213) batuz gero, ikus daiteke zergadun horri Euskal Autonomia Erkidegoko araudia aplikatu behar zaiola. Ondoren, ikus dezakegunez, Gipuzkoan eman du denbora gehiena (121 egun, Bizkaiko 92 egunen aldean). Beraz, zergadun horrek Donostian izango du egoitza, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko dio zerga.

- **Interes gune nagusiaren irizpidea:** interesgune nagusia Gipuzkoan duenean, hau da, etekinen zatirik handiena Gipuzkoan lortu dituztenean (lana, kapital higiezina, jarduera enpresarialak...).

Ondoko kausan, adibidez, pertsona fisiko bat herri hauetan bizi izan da 2017. urtean, denbora tarte desberdinetan:

Lurraldea	Egunak
Madril	151
Gipuzkoa	107
Bizkaia	107

Oraingoan, lehen irizpidea (egonaldia) ez da nahikoa ohiko egoitza zehazteko, nahiz eta jakin badakigu egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela. Aztertu behar dugu non duen interesgune nagusia (Bizkaian ala Gipuzkoan), zein foru ogasunetan ordainduko duen zerga.

- **Azken egoitzaren irizpidea:** zerga honetan aitortutako azken egoitza Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

Lehen irizpidearen arabera ohiko egoitza inolako lurraldetan (komuna edo foru lurraldea) zehaztea ezin izan denean erabiliko da bigarren irizpidea. Lehen eta bigarren irizpideen arabera ohiko egoitza inolako lurraldetan (komuna edo foru lurraldea) zehaztea ezin izan denean erabiliko da hirugarren irizpidea

Atal honetan, **ohiko egoitzaren ustezko bi kasuak** finkatu dira, lotura ekonomikoan eta lotura familiarrean oinarrituta:

- **Lotura ekonomikoa:** hiru baldintza hauek betetzen direnean ulertuko da lurralde espainiarrean bizi diren zergadunek egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela:
 - Lurralde espainiarrean bizitzea.
 - Urte naturalaren barruan 183 egun baino gehiagotan lurralde espainiarretik kanpo egotea.

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea haien jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoen gune nagusia.

Era berean, haien jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoen gune nagusia Gipuzkoan kokatuta dagoenean ulertuko da pertsona fisiko horiek lurralde horretan bizi direla.

- **Lotura familiarra:** behin pertsona fisiko bat lurralde espainiarrean bizi dela uste ondoren, Gipuzkoan legez bereizi gabeko ezkontidea eta haren menpeko adingabeko seme-alabak bizi direnean izango du ohiko egoitza lurralde horretan, baldin eta pertsona horrek aurkakoa frogatzen ez badu.

1.3 Zer aitortu behar da?

Hau aitortu behar du zergadunak:

- Bere titularitateko ondasun guztiak.
- Sortzapen egunean, hau da, 2017ko abenduaren 31n, egotzen zaizkion eduki ekonomikoko eskubide guztiak.

1.4 Zer ez da aitortu behar?

Zergadunak ez ditu ondoko ondasun eta eskubideak aitortu behar:

- Zergadunaren **ohiko etxebizitza**¹⁰⁰ gehienez 300.000,00 euroraino.
- **Euskal Ondare Kulturala** osatzen duten ondasunak, behar bezala inskribatuak daudenean.
- **Autonomia Erkidegoen Ondare Historikoa** osatzen duten ondasunak, erregistratuak eta kalifikatuak daudenean, eta **Espainiako Ondare Historikoa** osatzen dutenak.
- **Museo edo kultur erakundeei gordailuan lagatako arte-gaiak, zaharkinak eta bildumak**, haietan gordailatzen diren bitartean. Baldintzak:
 - Irabazteko asmorik ez izatea.
 - Lagapenaldia hiru urtetik beherakoa ez izatea.
- **Artistaren artelana bera**, egilearen ondarean jarraitzen duen bitartean.
- **Etxeko ostilamendua**, salbu eta bitxiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak, aireontziak, arte-gaiak, zaharkinak, eta 10.000 eurotik gorako balioa duten banakako elementuak.
- **Eduki ekonomikoko eskubideak**, aurrezpen tresna hauetan:
 - a) Bazkide osoen edo arrunten **eskubide kontsolidatuak** eta onuradunen eskubide ekonomikoak, **borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate batean**.
 - b) Partaideen **eskubide kontsolidatuak** eta onuradunen eskubide ekonomikoak, **pentzio plan batean**.
 - c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen **aurreikuspen plan aseguratuei** ordaindutako primei dagozkien **eduki ekonomikoko eskubideak**.

d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen **enpresen gizarte aurreikuspeneko planei** subjektu pasiboak egindako ekarpenei dagozkien **eduki ekonomikoko eskubideak**, hartzailearen kontribuzioak barne.

e) Enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zer ikusirik ez duten **eduki ekonomikoko eskubideak**, baldin eta enpresek pentzio gaietan hartutako konpromisoak bideratzen dituzten **aseguru kolektiboko kontratuei** subjektu pasiboak ordaindutako primetatik badatoz, Pentzio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuaren lehen xedapen gehigarrian eta horren garapenerako araudian jasotako eran. Era berean, enpresariak aseguru kolektiboko kontratu horiei ordaindutako primetatik datozen eduki ekonomikoko eskubideak ere bai.

f) **Mendetasun aseguru pribatuei** ordaindutako primei dagozkien **eduki ekonomikoko eskubideak**.

- **Jabetza intelektual edo industrialetik** eratorritako eskubideak, egilearen ondarean dauden bitartean, eta jabetza industrialaren kasuan, jarduera ekonomikoei atxikita ez daudenean.
 - **Salbuesita dauden etekinak sortzen dituzten baloreak**¹⁰¹.
 - Euskal Herrian kokatuta dauden **espezie autoktonoko basoak**. Salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuk oda gehienez..
 - **Energia berriztagarrien instalazioak**, halakotzat harturik iturri berriztagarrien aprobetxamenduei dagozkienak, baldin eta sortzen duten energia titularraren zuzeneko kontsumorako edo banaketa-sareetara eramateko erabiltzen bada. Salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez.
 - Jendeak oro har erabiltzekoak diren **bidexka, terreno eta instalazioak**, haien onura kasuan kasuko herri Administrazioak aitortu duenean.
 - Nagusiki nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza edo basogintza jardueretan erabiltzen diren ondasun eta eskubideak, baldin eta jarduera horiek pertsonalki eta zuzenean egiten badira, eta ondasun eta eskubide horiek zergadunaren errenta iturri nagusia diren jarduera ekonomikoei atxiki ez badaude. Salbuespen hau 100.000 euroraino aplikatuko da gehienez..
 - Pertsona fisikoek **beren jarduera ekonomikoari** atxikita dituzten ondasun eta eskubideak, baldin eta jarduera hori ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean egiten bada, eta zergadunaren errenta iturri nagusia bada.
 - Ondasun eta eskubide horien artean sartu behar dira bi ezkontideek edo izatezko bikoteko bi kideek amankomunean dituztenak.
- Errenta bat errenta iturri nagusitzat hartzen da PFE-Zaren zerga oinarriaren 100eko 50, gutxienez, jarduera ekonomikoaren etekin garbietatik datorkionean. Hori kalkulatzeko, ez dira konputatuko ez hurrengo apartatua aipatutako entitateetan egiten diren zuzendaritza funtzioen ordainsariak, eta ez entitate horietan parte hartzeagatik ematen den ezain ordainsari.

100 Ohiko etxebizitza Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan halakotzat hartutakoa izango da

101 Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergak 13. artikuluan jasotakoaren arabera salbuesitako baloreak.

Zergadun batek bi jarduera ekonomiko edo gehiago egiten baditu esandako moduan, haiei atxikitako ondasun eta eskubide guztiak egongo dira salbuetsita, eta aurreko paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, jarduera guztien etekin multzoa hartuko da errenta iturri nagusizat.

- Merkatu antolatuetan kotizatutako zein kotizatu gabeko **entitateetako kapital edo ondare partaidetzen** jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufuktu eskubidea, baldintza hauek betetzen badira:
 - Sozietate izaera izan edo ez, entitatearen jarduera nagusia ez izatea ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa.

Entitate batek ondare higigarria edo higiezina kudeatzen duela eta, beraz, jarduera ekonomiko bat egiten ez duela ulertuko da ekitaldi sozialeko 90 egunetan baino gehiagotan zirkunstantzia hauetako bat gertatzen denean:

a) Bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreez osatuta egotea, edo

b) Bere aktiboaren erdia baino gehiago jarduera ekonomikoei lotuta ez egotea.

Hala aktiboaren balioa nola jarduera ekonomikoei atxiki gabeko ondare elementuena kontabilitatetik ondorioztatuko dira, baldin eta kontabilitateak sozietatearen benetako ondare egoera zehazki islatzen badu.

Jarduerari lotu gabeko baloreez edo ondare elementuez osatutako aktiboaren zatia kalkulatzeko:

1.– Ez dira konputatutako balore hauek:

— Legezko eta arauzko eginbeharrak betetzeko edukitzen direnak.

— Jarduera ekonomikoak egitearen ondorioz ezarritako kontratu harremanetatik sortutako kreditu eskubideak barnean dituztenak.

— Balore sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

— Gutxienez boto eskubideen 100eko 5 eman eta parte-hartzea zuzentzeko eta kudeatzeko helburuaz edukitzen direnak, baldin eta, ondorio horietarako, baliabide material eta pertsonalen antolamendu egokia badago eta partaidetutako entitatea letra honetan sartuta ez badago.

2.– Ez dira konputatutako ez balore gisa eta ez jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementu gisa eskuratze prezioa entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoak egitetik eratorriak badira, urtean bertan nahiz aurreko 10 azken urteetan lortutako mozkinen zenbatekoaren mugapean. Ondorio horietarako, jarduera ekonomikoetatik etorritako mozkinekin parekatzen dira aurreko paragrafoaren azken puntuan azaltzen diren balioetatik etorritako dibidenduak, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru-sarrerak, 100eko 90ean gutxienez, jarduera ekonomikoak egitetik badatoz.

Entitateak beste entitate batzuetan ere parte hartzen duenean, ulertuko da ez duela ondare higigarri bat kudeatzen, baldin eta, entitate horietako bakoitzean zuzenean gutxienez boto eskubideen 100eko 5 edukita, partaidetzak zuzendu eta kudeatzen baditu baliabide pertsonal eta materialak antolatuz. Horretarako, beharrezkoa izango da entitate partaidetuen jarduera nagusia ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa ez izatea, aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera.

– Zergadunak entitatearen kapitalean duen partaidetza gutxienez 100eko 5ekoa izatea, banaka aintzat hartuta, edo 100eko 20koa berearekin batera ezkontidearena, izatezko bikote lagunarena, aurreko zein ondorengo ahaideena, edo bigarren mailako zeharkako ahaideena aintzat hartuta (ahaidetasunaren jatorria izan daiteke odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea edo adopzioa).

– Zergadunak entitatean zuzendaritza lanak egitea benetan, eta horregatik bere jarduera ekonomikoen eta lan pertsonalaren etekin guztien 100eko 50etik gorako ordainsaria jasotzea. Ondorio horietarako, aurreko puntuko jardueren etekinak ez dira konputatutako salbuetsita daudenean. Entitatean duen partaidetza aurreko letran aipaturiko pertsonetako batekin edo batzuekin batera duenean, zuzendaritza funtzioak eta hortik datozen ordainsariak ahaidetasun taldeko pertsona batek bederen izan behar ditu, salbuespenerako eskubidea denek izatea eragotzi gabe.

Pertsona bera zuzenean hainbat entitateetako partaidetzen titularra denean eta haietan apartatu honetan jasotako baldintzak betetzen direnean, portzontajea berezita kalkulatu da entitate horietako bakoitzarentzat.

Salbuespenak ez du hartuko jarduera ekonomikoa egiteko beharrezkoak ez diren aktiboaren balioan partaidetzei dagokien zatia. Balio hori foru arau honetan jasotako erregelen arabera kalkulatu da, eta jardueraren ondorio ez diren zorrek gutxituta egongo da.

Jarduera ekonomikoei atxikitako ondasunak eta hainbat partaidetza salbuesteiri dagokionez, honako hau argitzea komeni da:

Ulertzen da aktibo bat beharrezkoa dela jarduera ekonomiko bat egiteko, jarduera horri atxikitako elementu bat denean, hala ezartzen du AFHZZFAK 26. artikuluan. Guztiarekin ere, entitate baten funts propioetan parte hartzea adierazten duten aktiboak jarduera ekonomikoari atxikita egon daitezke.

Ibilgailu, itsasontzi eta aireontziekin erlazionatutako aktiboak atxikitat hartuko dira haien gastuak kengariak diren proportzio berdinean.

Salbuespena aplikatzeko beharkizunak eta baldintzak 2017ko abenduaren 31n bete behar dira.

HONAKO HAUEI INOIZ EZ ZAIE APLIKATUKO SALBUESTPEN HORI

* Printzipioz salbuetsita dauden ondasun higieziinei, horiek laga badira edo haien gainean eskubide errealak eratuta badaude, haien errentamendua edo azpierrantamendua barne, non eta ondasun horiek ez dauden atxikita higiezin errentamenduko jarduera bati, eta hura egiten duen zergadunak, gutxienez, ez duen soldatapeko BOST langile, lanaldi osoan eta dedikazio eskusiboarekin. Ondorio horietarako, enplegatutako ez dira konputatutako zergadunarekin harremana dutenean (ezkontidea, izatezko bikote-laguna, aurreko edo ondorengo ahaideak, bigarren mailako zeharkako ahaideak, izan ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea edo adopzioa), edo sozietateen gaineko zergaren foru arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera lotutako pertsonak direnean.

* Ustiapen ekonomikoei atxikita ez dauden ondasun higieziinei partaidetzen balioan dagokien zatiari. Era berean, salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioan dagokien zatiari (balio hori foru arauaren balorazio arauak aplikatuta kalkulatu behar da), higiezin horiek lagatzen direnean edo horien

gainean eskubide errealak eratzten direnean, haien errentamendua edo azpierrementendua barne, NON ETA entitateak ez duen, gutxienez, soldatapeko BOST langile, lanaldi osoan eta dedikazio eskusiboarekin. Ondorio horietarako, pertsona enplegatua ez dira konputatuko zergadunarekin harreman edo loturaren bat dutenean aurreko paragrafoan adierazitako eran.

Higiezinen errentamendua jarduera kualifikatua duten entitateetako partaidetzetan, salbuespena ez da aplikatuko sozietateen gaineko zergaren foru arauak 115. artikuluko 1 apartatuan aipatzen dituen kasuetan.

* Partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreei, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei eta ibilgailu, urontzi eta aireontziei dagokien zatiari. Zerga oinarria kalkulatzeko, kontabilitate balio garbiaren ordez, kontuan hartuko da 3. apartatuan jasotako balorazio erregeletatik ateratzen den balioa, salbu eta kontabilitate balio garbia xedapen horiek aplikatuta ateratzen den balioa baino handiagoa denean. Orobat, salbuespena ez da aplikatuko esandako partaidetza hori zeharka edukitzen denean beste entitate batzuetako partaidetzen bitartez, betiere baldin eta partaidetza portzentajea entitate horien kapitalaren 100eko 5ekoa edo handiagoa bada. Ondorio horietarako, konputatuko da zergadunaren partaidetza nahiz ezkontidearena, izatezko bikote-lagunarena, aurreko zein ondorengo ahaideena, edo bigarren mailako zeharkako ahaideena (ahaidetasunaren jatorria izan daiteke odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea edo adopzioa), edo sozietateen gaineko zergaren foru arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera lotutako pertsona edo entitateena.

Salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreei dagokien zatiari, baldin eta balore horiei dagokienez zergadunak gutxienez boto eskubideen 100eko 5 badauka, eta partaidetzak baliabide pertsonal eta materialak egoki antolatuz zuzentzen eta kudeatzen baditu.

* Inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei.

1.5 Zein da titularra?

Ondasun eta eskubideen titularra zein den zehazteko, kontuan hartuko dira titulartasun juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikagarriak diren arauak, betiere zergadunek aurkeztu edo Administrazioak aurkitutako frogak aintzat harturik. Titulartasun juridikoari buruzko arauak dira, esate baterako, ezkontzaren erregimen ekonomikoa arautzen duten xedapenak, eta familiako kideen artean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteko kideen arteko ondare harremanei kasu bakoitzean aplikagarri zaien legeria zibilean jasotakoak

Gertatzen bada ezkontzaren erregimen ekonomikoa edo ondare erregimena arautzen duten xedapenen arabera ondasun edo eskubide bat bi ezkontideena edo izatezko bikoteko bi kideena dela, balioa erdibana egotziko zaie, non eta ez den frogatzen badagoela beste partaidetza kuota bat.

Ondasun edo eskubideen titulartasuna behar bezala frogatzen ez bada, Zerga Administrazioak erregistro fiskal batean edo izaera publikoko beste batean titular gisa azaltzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

Kargak, zorrak eta betebeharrak aurreko arau eta irizpideei jarraiki egotziko zaizkie zergaduneri.

Testamentu-ahalordea erabili gabe duten heren tzietan gozamen eskubiderik badago, aurreko arauak aplikatuko dira gozamenaren.

Jabetza soilaren balioari dagokionez, edo inolako gozamenunik ez dagoenean, testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak zergapetuko dira aren.(e)ko / Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egoki tzen duenak, II. tituluan ezarritakoaren arabera.

1.6 Nola aitortzen da?

Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zergaren aitortpena **banaka** aurkezten da.

Familia unitate bateko kide izanik ere, zergadun bakoitzak banaka aurkeztu behar du aitortpena, bere aberastasuna indibidualizatuz.. Berea den aitortpena besterik ez du aurkeztu behar.

1.7 Noiz eta non aurkezten da aitortpena? Nola ordaintzen da?

Aitortpena aurkezteko epea 2018ko apirilaren 23an hasi eta urte bereko ekainaren 30ean amaituko da, biak barne.

Modalitate hau erabil daiteke zerga honen aitortpena aurkezteko:

- Telematikoa (internet).

ERNE: zergadunak modalitate honen bidez bakarrik aurkez dezake aitortpena.

Modalitate honen erabiltzaileak izan daitezke:

- Zergadunak: partikularrak eta enpresariak zein profesional autonomoak
- Ordezkarri profesionalak: aholkulari eta kudeatzaileak

Prozedura

Hona hemen urteko aberastasunaren aitortpena internet bidez aurkezteko urratsak:

1) Datuak betetzea:

ZergaBidea laguntza programa erabili behar da. Gure webgunean bakarrik eskura daiteke. Zergadunek eta ordezkarri profesionalak programa berdina dute.

ADI: autolikidazioa egitean, zergadunek zerrendatu behar dituzte euren titulartasuneko ondasun eta eskubide guztiak, salbuesitakoak barne. Ondasun eta eskubideak 3. apartatuko erregelen arabera baloratuko dira.

2) Transmititzea:

- Zergadunak: pasahitz operatiboa zein sinadura elektronikoa erabiliz. Ezin da bidali kontraste datuarekin.
- Ordezkarri profesionalak: sinadura elektronikoa erabiliz.

3) **Frogagiriak aurkeztea** (zergadunak edo ordezkarri profesionalak): ez da frogagiririk aurkeztu behar. Aurkezpena amaitzen da aitortpena Internet bidez bidaltzen denean. Dena den, preskripzio epeak dirauen bitartean, beharrezkoa da gordezea bai ondasun eta eskubideen nahiz zor eta obligazioen titulartasun zein balorazioari buruzko frogagiri eta egiaztagiriak, eta bai autolikidazioetan jasotzen diren kenkariak.

Autolikidazioaren emaitza

Ordaintzekoa

Ordaintzeko emaitza 2018ko uztailearen 2an kargatuko da kontu korrontean.

1.8. Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek

Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziari buruz aurreko ezarritako obligazio formal eta materialak betetzea herentziaren administratzaileari dagokio.

Orobat, testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziaren administratzailea erantzule subsidiarioa izango da bi zergen ordaintzari dagokionez.

Testamentu-ahalordea erabili gabe duen herentziako ondasun eta eskubideek bi zergen tribututako dute, haien eduki tzailea zeinahi dela ere, salbu eta eduki tzaile hori erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat bada, edo, ezin in-skriba daitezkeen ondasun higigarrien kasuan, onustez etan titulu zuzenarekin justifikatzen bada ondasun eta eskubideok merkataritzaiko edo industriako establezimendu batean esku-ratu direla.

Horretarako, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun eta eskubideen eskualdaketan, ondasun eta eskubide horiek testamentu-ahalordea osorik edo partez eta modu ezeztazinean erabiltzeagatik edo ahalorde hori azkentzeagatik eskualdatzen badira, eskuhartzen duten notarioek, beraiek eskuetsitako agiritan, ohartarazi behar dute ezen ondasun eta eskubide horietatik honetan aipatzen diren eta eskualdaketa baino lehen sortutako zergen kuotak ordaintzari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean. Era berean, Jabetzako edo Merkataritzako Erregistratzaileek orribazterreko ohar baten bidez adierazi behar dute ondasunak eta eskubideak titulu honetan aipatzen diren eta eskualdaketa baino lehen sortutako zergen kuotak ordaintzari lotuta geratzen direla, ordaintzeko obligazioa preskribatzen ez den bitartean.

2. Zerga oinarria

Zergadunaren aberastasun garbiaren balioa izango da **zerga oinarria**.

Aberastasun garbia bi hauen arteko aldeak emango du:

- Zergadunarenak diren ondasun eta eskubideen balioa.
- Ondasun izaerako kargak, ondasun eta eskubideen balioa gutxitzen badute, eta zergadunak bere gain hartu behar dituen zorrak.

ERNE: aberastasun garbia zehazterakoan, salbuetsitako ondasunen kargak ez dira kenkaridunak izango.

LABURPENA

Ondasun eta eskubideen balioa

- Karga eta grabamen errealak, eta zorrak eta betebeharrak

Aberastasun garbia

3. Nola baloratzen dira ondasunak, eskubideak eta zorrak?

Aurretik ikusi den bezala, ondoko hauek baloratu behar dira zergaren zerga oinarria kalkulatzeko:

- Zergadunaren titularitateko ondasun eta eskubideak.
- Zergari lotutako ondasun edo eskubideen balioa murrizten duten karga errealak.
- Zergadunaren erantzukizunari lotutako zor eta betebeharrak pertsonalak.

Azter ditzagun kontzeptu horiek guztiak.

3.1 Ondasun higiezinak

3.1.1 Ondasun higiezin hiritar edo landatarrak

Hiri zein landa izaerako ondasun higiezinak balio katastrala- ren arabera konputatuko dira.

Zergaren sortzapen egunean ondasun higiezinak ez badute balio katastralik edo atzerrian kokatuta badaude, eskurapen balioaren arabera konputatuko dira, betiere balio hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 45. artikuluko 2. apartatuan jasotako koefizienteekin eguneratu eta gero.

3.1.2 Eraikitzen ari diren ondasun higiezinak

Aberastasun balioztat hartuko da eraikuntza horretan zergadunak 2017ko abenduaren 31ra arte inbertitu dituen zenbatekoak eta orubearen aberastasun balioa.

Jabetza horizontala egonez gero, orubearen balioan duen zati proportzionala tituluan finkaturiko portzentajearen arabera zehaztuko da.

3.1.3 Jabetza anitzeko kontratuen edo antzekoen indarrez eskuratutako ondasun higiezin gaineko eskubideak

- Ondasun higiezinaren titulartasun partziala badakarte, 3.1.1. puntuko arauei jarraituz baloratuko dira.
- Ondasun higiezinaren titulartasun partzialik ez badakarte, ziurtagiritan edo bestelako titulu adierazgarrietan ageri den eskurapen prezioaren arabera baloratuko dira. Uztailaren 6ko 4/2012 Legean aurreikusitako eskubideak –bertan arautzen dira turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuak, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuak, eta birsal-tze eta truke kontratuak, eta zenbait zerga arau ematen dira–, modu berean baloratuko dira, haien izaera edozein dela ere..

OHARRA: 1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko kontratuen indarrez errentan emandako ondasun higiezinak. Sortutako errentaren %4 kapitalizatuz baloratuko dira, betiere horrela kalkulaturiko balioa ondasun higiezinak baloratzeko erregelak aplikatuta ateratzen dena baino txikiagoa bada.

3.2 Jarduera ekonomikoak

Bi kasu bereizten dira:

- **Merkataritza Kodeari egokituriko kontabilitatea eramaten denean:**

Jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun eta eskubideak beren kontabilitateki ateratzen den balioagatik konputatuko dira, aktibo errealearen eta pasibo exijigarriaren arteko aldea kontuan hartuta.

Hori ez da aplikatuko ondasun higiezinak, ibilgailuen, urontzien eta aireontzien kasuan; izan ere, horiek baloratuko dira 3. apartatuko balorazio erregelaren arabera, salbu eta kontabilitate balioa handiagoa bada xedapen horiek aplikatuta ateratzen den balioa baino.

Ondasunak jarduera ekonomikoei atxikitatuz jozteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak dioe-

nari jarraituko zaio. Foru arau horren 27. artikuluko 5. eta 6. erregeletan aipatzen diren ibilgailu, itsasontzi eta aireontziak atxikitzat joko dira haien gastuak kengarriztat jotzen diren proportzio berdinean.

- **Merkataritzza Kodeari egokituriko kontabilitatea eramaten ez denean:**

Honela gertatzen denean, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko Zergaren gainerako arauak erabiliko dira ondasun eta eskubideak baloratzeko.

3.3 Kontu korrante edo aurrezki kontuen gordailuak, agerian edo epeka

Balio hauetan **handiena** kontuan hartuz konputatuko dira:

- 2017ko abenduaren 31n duten saldoa.
- 2017ko laugarren hiruhilekoan duten batez besteko saldoa. Kalkulu hori egiteko, dauden ondasun eta eskubideak eskuratzeko edo zorrak kitatu nahiz murrizteko ateratako fondoak konputatu gabe utziko dira.

3.4 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak

2017ko laugarren hiruhilekoan izan duten batez besteko negoziatio balioaren arabera konputatuko dira.

3.5 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak

Merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren balore hauek beren nominalaren arabera konputatuko dira, amortizazio edo itzulketa primak barne hartuz, hala badagokio.

3.6 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak

2017ko laugarren hiruhileko batez besteko negoziatio balioaren arabera konputatuko dira.

Apartatu honetatik kanpo geratuko dira inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak.

3.7 Edozein motatako entitateen fondoe-tan parte hartzea adierazten duten gainerako baloreak

Balore hauek ez dira negoziatzen merkatu antolatuetan, eta onartutako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoaren arabera konputatzen dira.

ADI: Ondasun higiezinaren, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen, edo ibilgailu, urontzi edo aireontzien kasuan zerga oinarria kalkulatzearen ondorioetarako, aurreko apartatuetan aipatu den balio teorikoa aktiboen kontabilitate balio garbia zerga honen ondorioetarako izango luketen balioarekin ordeztuta zehaztuko da.

Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare fondoko akzio eta partaidetzak 2017ko abenduaren 31ko likidazio balioaren arabera konputatuko dira. Balantzean sar-

tutako aktiboak berariazko legerian jasotako arauari jarraiki baloratuko dira, eta hirugarrenetik betebeharrak kenkaridunak izango dira.

Bazkideek kooperatiben kapital sozialean duten partaide-tzaren balioa zehazteko, kontuan hartuko da ordaindutako ekarpen sozialek –nahitaezkoek zein borondatezkoek– onartutako azken balantzean erazten duten zenbateko osoa, eta egoztitako eta konpentsatu gabeko galera sozialak egonez gero, horiek kendu egingo dira.

Horretarako, entitateek ziurtagiriak banatu beharko dizkiete beren bazkide edo partaideei, balorazioak bertan azalduz.

3.8 Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak

Bizitza aseguruak 2017ko abenduaren 31n duten erreskate balioaren arabera konputatuko dira.

Kapital bat dirutan edo ondasun higikor nahiz higiezinetan ematearen ondorioz erazten diren aldi baterako edo biziarteko errentak 2017ko abenduaren 31n duten kapitalizazio balioaren arabera konputatuko dira. Horretarako, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan pen-tσιοak eratzeko ezarrita dauden arau berberak aplikatuko dira.

3.9 Bitxiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak eta aireontziak

2017ko abenduaren 31ko merkatuko balioaren arabera konpu-tatuko dira.

Merkatuko balio hori zehazteko, ibilgailu erabilien balorazio taulak¹⁰² erabili ahal izango dituzte zergadunek.

3.10 Arte-gaiak eta zaharkinak

2017ko abenduaren 31ko merkatuko balioaren arabera konpu-tatuko dira.

3.11 Eskubide errealak

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan emandako irizpideei jarraiki baloratuko dira gozameneko eta jabetza soileko eskubide errealak.

3.12 Administrazio emakidak

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan emandako irizpideei jarraiki baloratuko dira.

3.13 Jabetza intelektual eta industrialetik eratorritako eskubideak

Zergadunak hirugarrenengandik eskuratu dituenen, beren eskurapen balioaren arabera konputatuko dira.

3.14 Kontratuzko aukerak

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritakoari jarraiki baloratuko dira.

102 Ikus 2017ko ekitaldirako onartutako balorazio taulak. Urtarrilaren 10eko 21/2017 Foru Agindua, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituen ondare eskualdaketan eta egintza juridiko doku-mentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraibideren gaineko zerga berezia, eta aberastasunaren eta fortuna han-dien gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko eta ekainaren 19ko 317/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 10eko 21/2017 Foru Aginduan sartu gabeko zen-bait garraio-elementuren batez besteko salmenta prezioak onar tzen dituen.

3.15 Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun eta eskubideak

Aurreko ataletan jaso ez diren ondasun eta eskubideak 2017ko abenduaren 31n merkatuan duten prezioaren arabera baloratuko dira.

3.16 Zorrak

2017ko abenduaren 31n duten balio nominalaren arabera baloratuko dira zorrak. Zergadunak bere gain hartu behar dituenek baino ez dute kenkarirako eskubiderik emango, **behar bezala justifikatuta** badaude beti ere.

Zenbateko abalatuak ez dira kenkaridunak izango, harik eta, zordun nagusiaren aurkako eskubidea erabili ondoren, honek ordaindu ez eta abal emalea zorra ordaintzera behartuta egon arte. Betebehar solidarioaren kasuan, kopuru abalatuaren kenkaria ezin izango da egin abalistaren aurkako eskubidea gauzatu arte.

Orobat, ezingo da kenkaririk aplikatu ondasun bat erostean geroratuak prezioa bermatzen duen hipotekagatik, baina horrek ez du eragotziko prezio geroratu edo zor bermatua kengarria izatea.

Inoiz ere ezin izango da kenkaririk egin ondasun edo eskubide salbuetsiak erosteko hartutako zorretan. Zati bateko salbuespena egiten denean, zorren zati proportzionala izango da kenkariduna, hala dagokionean.

4. Oinarri likidagarria

Oinarri likidagarria kalkulatzeko, zerga oinarriari **700.000,00** euro kendu behar zaizkio minimo salbuesiaren kontzeptuan.

Zerga oinarria – 700.000,00 euro = Oinarri likidagarria

Dena den, zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboan kasuan, minimo salbuesia aplikatuko zaie betiere frogatzen badute beren aberastasuna 700.000 eurotik beherakoa dela, eta haien egoitza ez badago paradisu fiskaltzat hartutako herrialdeetan edo informazioa trukatzeko akordiorik sinatu gabekoetan.

5. Kuota osoa

Kuota osoa kalkulatzeko, ondoko eskala aplikatu behar zaio oinarri likidagarriari:

Oinarri likidagarria Muga eurotan	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa Muga eurotan	Tasa (%)
0,00	0,00	500.000,00	0,25
500.000,00	1.250,00	1.000.000,00	0,60
1.500.000,00	7.250,00	1.600.000,00	1,00
3.100.000,00	23.250,00	3.200.000,00	1,30
6.300.000,00	64.850,00	Hortik aurrera	1,50

Adibidea

Kalkulatu dezagun 580.000,00 euroko oinarri likidagarri bati dagokion kuota osoa.

Oinarri likidagarria	Kuota osoa
500.000,00 €-raino	1.250,00 €
Gainerakoa 80.000 x %,60	480,00 €
Guztira	1.730,00 €

6. Oinarri likidoa

Kuota likidoa kalkulatzeko, kuota osotik gutxitu behar da atzerrian ordaindutako zergengatik aplikatutako kenkarien zenbatekoa.

Kuota likidoa ezin da izan inoiz negatiboa.

Obligazio erreagatik ateratzen den kuota likidoa ezin da izan aberastasun osoa obligazio pertsonalarengatik zergapetu izan balitz aterako zena baino handiagoa.

Ordaintzeko emaitza 2018ko uztailaren 2an kargatuko da kontu korrontean.

7. Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria

Zergak ordaintzeko betebehar pertsonala dagoenean, zergaren kuotatik ondorengo bi zenbatekoen artean **txikiena** kenduko da, ondasunak lurralde espainiarretik kanpo egoteagatik edo eskubideak handik kanpo erabiltzeagatik:

- Zergen konputatzen diren ondare elementuei antzeko zerga baten ondorioz atzerrian ordaindutako zenbateko efektiboa.
- Zergaren batez besteko tasa efektiboa atzerrian zergapetutako oinarri likidagarriaren zatiari aplikatuz ateratzen emaitza.

$$\text{Batez besteko karga tasa} = \frac{\text{Kuota osoa}}{\text{Oinarri likidagarria}} \times 100$$

Adibidea

300.000 euroko oinarri likidagarria duen zergadun batek zergaren arauen arabera 120.000 eurotan baloratutako ondasun higiezin bat dauka atzerrian. Herrialde horretan, 240,40 euro ordaindu ditu, aberastaunaren eta fortuna handien gaineko zergaren pareko zerga batengatik.

Bere aitortenean zenbateko hauetatik txikiena kenduko du:

- Atzerrian ordaindutako zenbatekoa: 240,40 euro
- Atzerriko ondasunak aitortenean adierazten duen zenbatekoa.

Lehendabizi, batez besteko tasa efektiboa kalkulatu dugu:

Oinarri likidagarria: 300.000,00 €.

Kuota osoa: 300.000 x %,25 = 750,00 €

$$\text{Batez besteko tasa efektiboa} = \frac{\text{Kuota osoa}}{\text{Oinarri likidagarria}} \times 100 = \frac{750,00}{300.000,00} \times 100 = \%,25$$

Etxebizitzaren balorazioa, batez besteko tasa efektiboaren arabera: 120.000,00 €-ren %,25 = 300,00 €.

Atzerrian ordaindutako zergengatik egin beharreko kenkaria a) eta b)ren artean txikiena izango da: 240,40 €.